

● LIBURUAK ●

## Gerrazalekeria eta zurginaren artea




Garbine Ubeda

Goikoetxea

2392. alea

2013-11-24



Tweet 4

Follow @garbineubeda

Gomendatu 0



Bi album helarazi dizkigu Txalaparta argitaletxeko Mikel Sotok, tapaki gogorrekoak biak, inpresioaren kalitateagatik eta irudien orijinaltasunagatik ikusgarri egiten diren horietarikoak. Bata, *Ez da munduan min handiagoa ematen duenik*, Paco Livanek idatzia –Boli Kostako herri-ipuina batetik abiatuta, antza– eta Roger Olmosek ilustratua. Hiena bat eta erbi bat ditu protagonistak eta, oro har, zintzotasunaz dihardu.

Iban Barrenetxearen *Zurginaren ipuina* dugu bestea, 2012an Euskadi Saria jasotakoa, gaztelaniazko haur eta gazte literaturan. Euskaraz bikain emana dago, Arkaitz Goikoetxeari esker. Firmin zurgin fina du protagonista, eta Von Bonbus baroi gerrazalearen jokamoldea istorioaren gakoa. Testu luzexka du, albumetan ikusi ohi denarekin alderatuta. Aipamen berezia, halaber, lau tolesetan emana eta posterraren moduan zabaltzen den ilustrazioari.

Motzean esanda, ipuin-ipuina da zurginarena, irudimen eta ingenio handikoa, umorea ardatz nagusizat hartu duena. Izugarri dibertitu naiz.